


ITXASO MARTIN ZAPIRAIN

ni, Vera




Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ilajea, ile luze multzoa	Ileak ez dizu apenas ezer ikusten uzten, aurpegian duzu adats guztia. Nahastuta.	80
ahuldade ahulezia	Uste duzuen baina antzekoagoak zarete baina zu bere gainetik sentitzen zara. Eta ez diozu zure ahuldadea erakutsi nahi.	67
amore eman etsi, azkenean onartu	Ez nekien zergatik eman nuen amore bertara sartuz, bisita onartuko nuela esanez.	198
amorr sumina, haserre bizia	...berak egin behar izan zuela horrelakorik, eta nire amorr , lotsa, damu eta beldur guztien gainetik, zer egin ote nezakeen galdetzeraz joan nintzaion...	142
anabasa nahaspila	Denbora libreka daukadanean ez naiz argazkien anabasaz gogoratzen.	88
antzeman igarri, nabaritu	Ezer antzeman baino lehen eskegi nahi diozu.	70
apar bitsa	Gaineko aparrean biribil perfektua egin zuen hauts marroiekin.	48
apreta abarketa, alpagata	Apreta jarri orde, eskuineko oinarekin gauza bera egin nuen.	170
arkakuso ardia, txakur-katu... parasitua	Txiki-txikia sentitzen ari nintzen, arkakuso baten tamainakoa.	41
arnasestu itolarrria	Zure arnasestua ere geroz eta basatiagoa da, bihotzarekin lehian dabil, norgehiagokan.	11
arrotz arraroa, bitxia	Arrotza egiteraino hitza.	198
asaldatu urduritu, alteratu	Asaldatuak arriskutsuak izatera irits zitezkeenak ziren. Noizbehinka, batez ere udaberrian, aztoratu egiten zirenak.	110
aurreiritzi prejuizioa	Lasaiago geratu zara. Aurreiritziak ...	123
aztoratu larritu, urduri jarri	Asaldatuak arriskutsuak izatera irits zitezkeenak ziren. Noizbehinka, batez ere udaberrian, aztoratu egiten zirenak.	110
baba ur-batua, pusla (<i>ampolla</i>)	Egurrezko bankuan ematen nituen orduak. Oinazpiak babaz beteta neuzkan, txingarren erreduren eraginez, eta behatzen azkazalak txikituta.	203
baraila masailezurra	Ahoa irekita daukazu, barailak bere tokitik aterako zaizkizula dirudi.	23
barren barrua, barrura	Mediku hari neure barrenak erakutsi ondoren baina, ez zen oihu, marru, garrasi ez eta kolperik behar izan [...] makina hari bisita egiteko.	151
begizuloak eduki betazpiak ilunduta	Ez daukazu aurpegi ona, begizuloak dituzu.	87
bero sapa sargoria, bero itogarria	Bero sapa egiten zuen egun batean izan zen.	174
berunezko hankak sorgortutako hankak, ezinduak	Berunezko hankak mugitzeko apenas indarrrik gabe, etxeko atea ireki nuen.	105
burni burdina	Odolaren zapoak nazka eman zizun eta oka egitera zindoazela iruditu zitzaizun. Burni zaporea.	116
burnidun metalikoa	...bakoitzean hogeita hamar bat emakumezkorentzako maindire zuridun eta hanka eta oheburu burnidun oheak zeuden.	149
burrnba zaratotsa, astrapala	Zure arnasaren burrnba . Kanpotik da entzungarri.	13
burtzoro zorabioa	Burtzoroa desagertzen... bai... eta aireari pasoa ematen hasi zaio eztarria gutxika-gutxika.	14
burujabe izan askea	Ez nuen neure burua handik kanpo ikusten. Ez nuen uste burujabe izan nintekeenik.	201




burusoil kaskasoil	Eta? Ilea? Puztutako begirik ez, baina ilea? Burusoil zaude.	74
damu garbaia, arrepentimendua	Eta gurasoei? Egin nuenaren damua areagotzeko besterik ez zuen balioko.	140
damutu zerbaitegatik garbaitu, arrepentit	Begiradarekin izoztu egin zaitu. Galdera egin izanaz damutu zara . Zinez damutu ere.	100
denbora libre astia, aisia	Denbora libre a daukadanean ez naiz argazkien anabasaz gogoratzen.	88
dinate dizute (hitanoa)	Ez nion erantzuten. Egin dinatenagatik da?	144
duelu borroka, konbatea	Bakarrik. Dueluan . Gutun-azalak eta zu.	127
egonean patxadan, ezer egin gabe	Lanez kanpoko orduak egonean ematen hasi nintzen berriro.	201
eri atzamarra	Esan zizun ate atzean zeuden kako batzuk eriaz seinalatu.	43
erlaitz ertz irtena	Laino zurien artean ikusi nuen: leihoaren kanpoaldeko erlaitzean txori bat zegoen hilda.	199
ernegatuta gogañtuta, erreta	Gustatu egin zaizu, esan zenion ernegatuta .	53
erraiak tripak	Kontrolik gabeko garrasi, oihu, orro eta konbultsioak erraietatik aterako zaizkizun beldar zara.	21
erregutu mesedez, arren eskatu	Laguntza eskatu nahi nion... emakumearen kontsultako ateraino nirekin igo zedin erregutu .	36
errezatu otoitz egin	Eta errezatu egiten nuen, behin eta berriz, heriotzara kondenatu nuenagatik eta ustez inoiz gehiago ikusiko ez nituen bizirik zeudenengatik	153
errola zentsua	Diputazioa... errola ... nortasuna agiria lotzeko paperak eta beste hainbat.	128
errotik atera erauzi	Oinak sutan jartzeari utzi nion eta babak sendatu, horretarako zornez betetako behatz lodietako azkazalak errotik atera behar izan nituen.	205
ezgonkor loka dagoena, tinkotasunik gabe	Hara iritsi eta egurrezko aulki ezgonkor batean eserita atera zidaten argazkiaren argi-kolpetik [...] ez dut inolako oroitzapenik.	148
galarazi eragotzi, trabatu	Begiak gogor itxiz ur tantak ateratzea galaraziko nuela uste nuen.	191
galdarategi labe beroa	Birikak txikituta zituela hil zen. Galdarategi bat zen. Hark pasa zituen itolarriak, hark, hil bezperan.	100
garondo kokotea, buruaren atzeko alde	Burua makurtu zenuen eta halakoetan gertatzen dena errepikatu zuen, gogorregia izan zelakoan besoa luzatu eta garondoan jarri zizun eskua.	48
gorputzaldi txar sentsazio desatsegina	Gutxitan joaten zara bisitan, ez da emakume erraza, eta bisitetatik ia beti atera ohi zara gorputzaldi txarrarekin .	94
haluzinazio irudipena, imajina asmatua	...zuk zeuk ere daukazu batere argi zer gertatu den. Haluzinazioak diren. Ametsak ote diren.	84
hantura handitua, gune puztua	Ez duzu hanturarik ukitzen baina ispiluan begi erraldoia ikusten jarraitzen duzu.	74
hasperen arnasbehera, suspiria	Amaren hasperena entzun dut.	65
hautua aukera	Garraio publikoaren aldeko hautua egin zuen...	31
hesi itxitura	Leihotik begiratu eta autoa burnizko hesi berde baten aurrean geratu zela ikusi nuen.	190




higuigarri nazkagarria, okaztagarria	Higuigarriak , bai. Nazka, oka eragiten zidaten.	194
hilotz gorpua, hildakoa	...denok aterkipean ematen dute hilotza lurperatu arteko tartea.	120
hiztun berritsu, kalakari	Ondo zaudela esan didazu eta ni lasaiago geratu naiz, hiztunago zauden egun batean deitu diezadakezu.	67
hurrupa zurrupada, tragoa	Goxoa dago, esan zenion infusioari hurrupa bat eginaz.	87
idiliko poetiko, paradisuakoa	Ez zen itota hiltzeko tokirik idilikoena .	32
ihardetsi erantzun, arrapostu	Berehala amaitu ziren erantzun errazeko galderak. Ondoren iritsi ziren guztiei sorbaldak igo eta jaitsiz ihardetsi zenien.	45
iheskortasun denboraren joana	Itsasoak bakarrik lasaitzen zaitu orainean iheskortasunak arduratuta zauzkanean.	13
ilunabar iluntzea	Ateraino iritsitakoan begiak itxi nituen, ilunabarra zen arren udako egun argitsu gehiegi zen hartara ohituta ez zeuden nire begi berdeentzat.	173
ipurmasail ipurdi atala	Ipurmasailak sofaren larru zurian irristatu daitezen indar pixka bat besterik ez duzu egin behar.	25
iradoki sujeritu, gomendatu	...garai txarrak zetozela eta haurdunaldiari amaiera emateko iradoki zidan senarrak, berak harekin zerikusirik ez bazuen bezala.	141
irudipen lilurakeria, ilusioa	...urduriago jartzen zaituela iruditzen zaizu. Agian hori besterik ez da, irudipena .	87
isil gordean egin ezkutuka	Isil-gordean egin duela iruditu zaizu.	122
isuria jarioa	Eta odol isuria azkar asko desagertu zen, gertatuko zitzaidana kontatu zidan emakumeak azaldu bezala.	143
izorratu amorratu, erre	Begiratu izateak izorratzen nau. Baita begiratu ez izateak ere. Ez dakit zer den okerrago daramadana.	35
izugarritzko itzelezkoa	...ez zen oihu, marru, garrasi ez eta kolperik behar izan, izugarritzko mina ematen zuen makina hari bisita egiteko.	151
jabalgarri lasaigarri	Gorputz osoko ispiluaren aurrean jarri eta lasaitzea lortu duzu. Ikusi duzuna jabalgarri zaizu.	75
kantoi izkina, txokoa	...burua jiratu eta hortxe dago zabalduateko ate zuriaren kantoi an jarrita, luze eta zabal, zuzendaria.	132
kaskarin txoriburua, txolina	Egia esan, ez dakit zergatik debekatzen zioten, ez zion inori kalterik egiten pasilloan gora eta behera zebilen neska kaskarin hark.	155
kaskezur garezurra	Baina kaskezur esaten zidaten askotan gelakideek.	149
kikara katilu txikia	Koilaratxo kikaratik atera eta ahoan sartu zenuen, kafeinarik gabeko kafesne arrastoak miazkatuz.	49
kiribildu kizkurtu, biribilean bildu	Txixare bat bezala kiribiltzen ari haiz, ondo hago?	159
kizkurra kirrua	Ile ilun eta kizkurrekoa .	30
kolpatu jo	Galdera gehiago, askoz ere gehiago egiteko asmoz joan zara, baina gorputza kolpatu izan balizute bezala sentitzen zarenez, honetan uztea erabaki duzu.	111
konbultsio mugimendu kontrolaezina	Kontrolik gabeko garrasi, oihu, orro eta konbultsioak errietatik aterako zaizkizun beldar zara.	21
kontent pozik, pozarren	Aurkitzen badugu ondo, eta bestela ere zuri bisita egiteaz kontent ni, aita.	88



kudeatu gestionatu, kontrolatu	Ez nekien barruan zebilkidan sentsazio hura kudeatzen . Zer egin harekin? Nola kendu gainetik? Nondik zetorren?	194
lanpas felpudoa	“Ongi etorri” dioen lanpasaren gainean eta atea ixteko hamar bat zentimetro falta zirenean...	94
lauhazka galopan, arin ere arin	Pausoak geroz eta gertuago entzun ditzakegu. Bihotza azkartzen ari zaizu, zaldia da lauhazka .	15
lehertzear eztanda egiteko zorian	Betzuloetatik ateratzear nituen begiak puzten ari zitzaizkidan, lehertzear neuzkan.	38
leundu baretu, sosegatu	Ez dakit nola lortzen duzun eskuak beti bero izatea. Elkarrizketa leundu nahian bota zenuen.	50
limurtu irristatu	Errazago sartzen da aire hotza gorputzean, beroa pisutsuagoa da, mantsuago igarotzen dena. Hotza azkarrago limurtzen da eztarritik behera.	35
lotsa ahalkea	...berak egin behar izan zuela horrelakorik, eta nire amorru, lotsa , damu eta beldur guztien gainetik, zer egin ote nezakeen galdetzeraz joan nintzaion...	142
mailuka kolpeka	Mailuka daukat bihotza bularrean... mailuka... Peruren erreazioaren beldur naiz...	62
maindire mihisea, izara	...bakoitzean hogeita hamar bat emakumezkorentzako maindire zuridun eta hanka eta oheburu burnidun oheak zeuden.	149
maiz sarritan, usu	Mezetara maiz joaten diren horietakoa nintzen, apaizek esaten zutena entzun eta jarraitzen saiatzen nintzen, etxean irakatsi ziguten bezala.	142
malaria paludismoa	Malaria ... Aguarrasa... eta horrelako hitzak entzun dituzu beste hainbaten artean baina ezin diozu osotasunari atentziorik jarri.	111
malenkonía goibeldura, penatan egotea	Une honetan malenkonía handi batean murgilduta dago eta ez dago berarekin arrazoitzerik.	147
manatu agindu	Emakume ile kizkurrak manatu zizun tokian eseri zinen.	43
marru txilioa	...neure barrenak erakutsi ondoren baina, ez zen oihu, marru , garrasi ez eta kolperik behar izan, izugarrizko mina ematen zuen makina hari bisita egiteko.	151
maskuri puxika	Pixa egiten ari zara. Plazera sentitzen duzu maskuria husten ari zaizun heinean.	73
mesanotxe ohe ondoko mahaitxoa	Mesanotxean dagoen eta ezertarako erabiltzen ez duzun telefono hartu duzu.	76
mezatara elizkizun erlijiosoetara joan	Mezatara maiz joaten diren horietakoa nintzen, apaizek esaten zutena entzun eta jarraitzen saiatzen nintzen, etxean irakatsi ziguten bezala.	142
miazkatu milikatu, txupatu	Eta ahoan sartu zenuen, kafeinarik gabeko kafesne arrastoak miazkatuz .	49
mintzul hitz gabe, mutu	Mututa zeunden. Mintzul .	42
moja serora, lekaimea	Moja batek burutik helduta sudurra estaltzen zidan bitartean, beste batek arnasa hartzeko ahoa ireki behar izaten nuen unea aprobetxatzen...	149
murgilduta barneratuta, sakon sartuta	Une honetan malenkonía handi batean murgilduta dago eta ez dago berarekin arrazoitzerik.	147
nobedade berritasuna, ustekabea	Itsusi ikusten duzu zeure burua. Baina hori ez da nobedadea . Nobedadea da hogeitaz urte zaharragoa dirudizula.	73
oilo-ipurdia jarri asaldura handia eragin	Oilo-ipurdia jarri dizu haren izena eta zenbaki bat idatzita dituen karulina bikoitzak.	129
oinaze sufrimendua	Ez zara ilea ukitzera iritsi, eskumuturreko oinazeak ez dizulako utzi.	75
oinutsik ortozik	Beldurtuta bizi zara. Labanaren sorbatz zorrotzean oinutsik zabilta.	20



oka egin botaka egin	Hitzik ez zen izan, baina oka egin nion gainean.	168
opiazeo opio landaretik eratorrit substant	1942. urtekoa da lehena eta opiazeoen tratatzen zutela dio.	131
orro garrasia, oihu lazgarria	Orroak botatzen nituen noizbehinka, negar zotinka.	151
otoi egin erregutu, suplikatu	...mesedez, <i>esan diezadala ez kezkatzeko.</i> Otoi egin zenuen.	37
otu bururatu	Salto bat eta dena amaitu da, otu zaizu.	68
pagotxa mauka, zortea	Zerbait baldin banekien zen hura ez zela inolako pagotxa , bekataria ordaindu beharreko prezioa inoiz ez da xamurra izaten.	161
parez pare aurrez aurre, bekoz beko	...hantxe pasillo luze bat aurkituko duzu parez pare , hirugarren atean izango duzu zuzendaria zure zain.	125
pasarte bizipena, gertakizuna	Pasarte haiek biziberritzen nituenean izoztuta sentitzen nintzen.	193
patu destinoa	Zure zalantzak hor jartzen zuen, zure patuaren kontua argitu gabe.	92
pauta araua, eredu	Begira, garai hartan psikiatriko batean gizarteak nahi ez zituen pertsonak sartzen ziren, gizartearen pautetatik kanpo zeudenak, traba egiten zutenak.	108
pikotxean kokoriko, kukubilko (hank tolest	Pikotxean jarri da eta parez parez zaudete berriro.	18
profezia etorkizuneko iragartzea	Profezia bateko zela iruditu zitzaidan. Txori hila eta hitz egin behar ez zuen unean hitz egina.	200
psikiatriko eroetxea, buru-gaixoen ospitalea	Begira, garai hartan psikiatriko batean gizarteak nahi ez zituen pertsonak sartzen ziren, gizartearen pautetatik kanpo zeudenak, traba egiten zutenak.	108
puztualdi handitua	Ziur egon nahi zuen nire sabelaren puztualdi hura ez zela asmatutakoa edo gizentzen ari nintzen seinale.	140
puztuta handituta	Oso puztuta daukazu.	78
saiatuaren saiatuaz ekinaren ekinaz, ibili eta ibili	Haiek bakarrik moldatzen ikasi zuten saiatuaren saiatuaz.	144
sarraila irekitzeko-ixteko mekanismoa	Norbait sartzen ari da etxean. Sarrailaren zarata entzun duzu.	14
sorbatz ebakitze tresnen aho (zorrotza	Beldurtuta bizi zara. Labanaren sorbatz zorrotzean oinutsik zabiltza.	20
soslaiz zeharka, saiheska	Katiluari begiratu diozu, soslaiz , etsaiari begiratzen zaion bezala.	19
sumindu berotu, amorratu	Eta horrek amorrarazi zintuen. Haserretu. Sumindu . Sutu.	45
supituki bat-batean, kolpetik	Eta supituki igogailua geratu egin zen.	38
sutu piztu	Eta horrek amorrarazi zintuen. Haserretu. Sumindu. Sutu .	45
tenore unea, garaia	Ordu txarrean zatoz, ordu laurden barru askariaren tenorea da.	96
tentuz kontu handiz, zuhertasunez	Horregatik mantso egin nahi duzu irekiera operazioa. Tentuz ari zara.	128
tiradizo tirakada, indarkada	Baina tiradizo batek beste bat ekarri zuen eta beste bat eta beste bat.	191



tupustean ustekabea, ezustean	Tupustean begi bat puzten hasi zaizu. Ispiluan ikusten ari zara nola ari den handitzen.	73
txiker txikia	Ez zegoen oinazpiko larruan sentsazio ezberdinik sortuko zidan zimur txikerrik .	172
txiki-txiki ñimiñoa	Txiki-txikia sentitzen ari nintzen, arkakuso baten tamainakoa.	41
txitxare zizarea	Txitxare bat bezala kiribiltzen ari haiz, ondo hago?	159
ubelduta odol beltzunea	...ez dirudi beste munduko ezer egin duzunik. Ez daukazu ez puztuta, ez ubelduta .	83
udaberri bedatsea	Asaldatuak arriskutsuak izatera irits zitezkeenak ziren. Noizbehinka, batez ere udaberrian , aztoratu egiten zirenak.	110
ufada putzaldia, arnasa indarrez	Ufada bota du Peruk telefonoaren beste aldetik.	76
urte askotarako kaixo, laguna!	Orduan zurekin egin dut zita, urte askotarako . Eskua luzatu dizu.	106
uxatu aldendu, aienatu	Baina, mundu hartatik ihes egiteko ideia hura astebetetz bakarrik uxatu izan nuen burutik.	145
xixtrin hutsala, puñetero	Eskua burura eraman duzu, ezkerre oraingoan. Azal leuna ukitu duzu, ile xixtrin bat ere ez.	76
xox sosa, dirua	Etxeko lanak egiteagatik nik ez nuen xoxik ere ikusten.	97
zamar txamarra	...gainontzeko zombietatik apartatuen zegoen aulkian beti, burumakur eta nire zamar ilun lodi bakarra soinean.	148
zanpatu indarrez sakatu	Igogailu moderno hartan sartu eta hirugarren botoia zanpatu zenuen.	36
zer gerta ere badaezpada	Egun haietan guztietan ni ez nintzen bisita gelara gehiegi gerturatzen, zer gerta ere .	196
zimur izurra, tolestura	Ez zegoen oinazpiko larruan sentsazio ezberdinik sortuko zidan zimur txikerrik.	172
zin egin agindu, promेतitu	Filmetan bezala zapi zuria aterako duzula egin behar izan diozu zin . Hori izan da jarri dizun baldintza.	207
zinez benetan, egiatan	Galdera egiteaz damutu zara. Zinez damutu ere.	100
zintzilik dilindan	Zeure buruaren beldur zara, zure gorputzean sentitu eta horrek eragin dezakeenaz izu. Besoak zintzilik utzi dituzu.	68
ziplo bat-batean, berehalako batean	Eta zorabiatuko banintz?, pentsatu duzu. Zeren hori ere gerta liteke, zorabiatzea. Bertan, tabernaren erdian ziplo erortzea.	104
zonbi hilotz biziduna	...gainontzeko zombietatik apartatuen zegoen aulkian beti, burumakur eta nire zamar ilun lodi bakarra soinean.	148
zorne gatxez, infektatuta	Oinak sutan jartzeari utzi nion eta babak sendatu, horretarako zornez betetako behatz lodietako azkazalak errotik atera behar izan nituen.	205
zorro poltsoa	Plumifero beltza eta gurutzatuta zeneraman zorroa gainetik kendu gabe, eskuak banatan jarri zenituen.	40
zotinka hipaka, espasmoka	Orroak botatzen nituen noizbehinka, negar zotinka .	151
zurrutada hurrupa, tragoa	Kafeari zurrutada luze bat eman Zenón. Bero zegoen oraindik, baina zeure buruari mina eragin nahi zenion berriro.	53